

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

#### **Iruraiz-Gaunako udal planeamenduko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntuala**

Udalbatza honek, 2020ko abuztuaren 24ko aparteko bilkuran, hau erabaki zuen:

#### LAUGARRENA. IRURAIZ-GAUNAKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN 7. ALDAKETA PUNTUALA

Alkatetzak adierazi du komenigarria dela udal planeamenduko arau subsidiarioetan aldaketa zehatz bat egitea, beharrezko egokitzapena egiteko. Egokitzapen hori Azilu herriko kale bakarreko 4. zenbakian dagoen eraikina, Iruraiz-Gaunako Udalaren bulegoak izan eta egun udal mailan babesteko proposatu diren ondasun higiezin zerrendan jaso, deskatalogatzea da. Horretarako, proiektua idazteko ardura Ignacio Pedreira Ruiz de Arcaute udal arkitekto aholkulariari eman diote.

Iruraiz-Gaunako udal planeamenduko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren proiektua idatzi ondoren, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 7/2006 Legearen 103. eta 104. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz, Iruraiz-Gaunako Udalaren osoko bilkurak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluan esleitutako eskumenari jarraikiz, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA. Hasierako onespina ematea Ignacio Pedreira Ruiz de Arcaute arkitektoak idatzitako Iruraiz-Gaunako planeamenduko arau subsidiarioen 7. aldaketa puntualari.

BIGARRENA. Aldaketa puntual hori jendaurrean jartzen da hilabetez, iragarkiak ALHAOn eta probintzian hedapen handiena duten egunkarietako batean argitaratuz, interesdunek eta eragindakoei egoki jotzen dituzten alegazioak eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

HIRUGARRENA. Erabaki honen berri ematea udalerriko administrazio batzarrei, horren berri izan dezaten, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.5 artikuluan xedatutakoa betetzeko."

Azilu, 2020ko irailaren 7a

*Alkatea*

*SUSANA DÍAZ DE ARCAJA CUBILLO*